Lehendakaria / Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea - Idazkaria / Vocal Secretaria
Mª Aranzazu Arana Learte

**Resolución 5/2021 ebazpena**
Recurso 5/2021 errekurtsoa

BERDIN SL enpresak, Gipuzkoako Foru Kontratazio Zentralaren bidez material elektrikoa hornitzeko esparru akordioaren adjudikazioduna denak (X20011 espedientea), kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri zuen. Errekurtso horretan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran, goian adierazitako kideak bertan direla, honako erabaki hau hartu du, aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por BERDIN S.L., adjudicataria del acuerdo marco para el suministro de material eléctrico a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa (expediente X20011), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** Auzitegi honetako erregistro elektronikoan 2021eko apirilaren 14an aurkeztutako idazkiaren bidez, BERDIN SL enpresak kontratazio alorreko errekurtso berezia jarri du, non eskatzen baitu baztertzeko ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS SA enpresak (AELVASA) ebazpen honen idazpuruan aipatzen den esparru akordioaren hiru loteetarako aurkeztutako proposamenak, idazkian azaltzen dituen arrazoiengatik.

**BIGARRENA.-** Ez da beharrezkoa izan kontratazio espedientea eskatzea, Auzitegiaren esku baitago jada AELVASAk Gobernantzako diputatuaren martxoaren 18ko 487/2021 Foru Aginduaren aurka jarritako 4/2021 kontratazio alorreko errekurtso berezian (agindu horren bidez ebatzi zen BERDIN SL enpresarekin hitzartzea esparru akordio hori).

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro electrónico de este Tribunal el día 14 de abril de 2021 BERDIN S.L. ha interpuesto un recurso especial en materia de contratación en el que solicita que se excluyan las propuestas presentadas por ALMACENES ELÉCTRICOS VASCONGADOS S.A. (AELVASA) para los tres lotes del acuerdo marco citado en el encabezamiento de esta resolución, por los motivos que desarrolla en el cuerpo de su escrito.

**SEGUNDO**.- No ha sido necesario solicitar el expediente de contratación porque ya obra en poder del Tribunal en el recurso especial en materia de contratación 4/2021, interpuesto por AELVASA contra la Orden Foral 487/2021, de 18 de marzo, de la diputada de Gobernanza, por la que se resuelve concluir con BERDIN S.L. el referido acuerdo marco.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENENGOA.-** 2020ko abenduaren 22ko erabakiaren bidez, Diputatuen Kontseiluak kontratazio espedientea onartu zuen Gipuzkoako

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.-** Por acuerdo de 22 de diciembre de 2020 el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación para la conclusión de

Foru Kontratazio Zentralaren bidez material elektrikoa hornitzeko esparru akordio bat hitzartzeko, hiru sortetan banatuta: eraikinak kontserbatzeko materiala, industria kontserbatzeko materiala eta argiteria publikoa kontserbatzeko materiala.

un acuerdo marco para el suministro de material eléctrico a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa, dividido en tres lotes: material para conservación de edificios, material para conservación industrial y material para conservación de alumbrado público.

Lau enpresak aurkeztu zituzten eskaintzak, eta horietako bi hiru sortetatik kanpo utzi ziren, hainbat arrazoirengatik. Beste bien proposamenak, AELVASA eta BERDIN SL enpresenak, baldintza agirietan aurreikusitako adjudikazio irizpideen arabera baloratu ziren, eta horren ondoren, Foru Kontratazio Zentralak erabaki zuen esparru akordioa BERDIN SL enpresarekin hitzartzeko proposamena egitea.

Presentaron ofertas cuatro empresas, dos de las cuales fueron excluidas de los tres lotes por diversas causas. Las proposiciones de las dos restantes, AELVASA y BERDIN S.L., fueron valoradas de acuerdo con los criterios de adjudicación previstos en los pliegos, tras lo cual la Central de Contratación Foral acordó proponer la conclusión del acuerdo marco con la empresa BERDIN S.L.

Gobernantzako diputatuaren martxoaren 18ko 487/2021 Foru Aginduaren bidez, ebatzi zen BERDIN SLrekin hitzartzea esparru akordioa. Foru agindu hori AELVASAk martxoaren 31n jarritako kontratazio alorreko 4/2021 errekurtso bereziaren xede da. Errekurtso horretan eskatzen zuen foru aginduaren deuseztasuna deklaratzeko, jarduketak birjartzeko eta esparru akordioa berari adjudikatzea erabakitzeko.

Por Orden Foral 487/2021, de 18 de marzo, de la diputada de Gobernanza, se resolvió concluir el acuerdo marco con BERDIN S.L.; orden foral que es objeto del recurso especial en materia de contratación 4/2021 interpuesto el 31 de marzo por AELVASA, en el que solicita que se declare su nulidad, se repongan las actuaciones y se acuerde adjudicarle a ella el acuerdo marco.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (SPKL), 56.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Auzitegiak, apirilaren 14an, errekurtsoaren berri eman dio BERDIN SLri alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Conforme a lo previsto en el artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el 14 de abril el Tribunal ha dado traslado del citado recurso a BERDIN S.L. para que pueda formular alegaciones.

**BIGARRENA.-** BERDIN SLk, bere errekurtsoan, ez du zehazten zein egintzaren aurka aurkezten duen errekurtsoa. Jakina, ez du errekurtsorik aurkezten esparru akordioa berarekin hitzartzea ebazten duen foru aginduaren aurka; izan ere, aldeko egintza da, bere eskubide edo interes legitimoei inolako kalterik edo eraginik sortu ezin diena.

**SEGUNDO.-** En su recurso BERDIN S.L. no concreta qué acto recurre. Evidentemente no recurre la orden foral que resuelve concluir el acuerdo marco con ella, puesto que se trata de un acto favorable que ningún perjuicio o afección puede causar a sus derechos o intereses legítimos.

Adierazten duenez, adjudikaziodun izendatzeko marjina hain txikia izanik eta AELVASAk adjudikazio egintzaren aurka errekurtso bat

Afirma que, siendo tan pequeño el margen por el cual ha sido la adjudicataria y en vista del riesgo que para sus intereses puede representar un

jartzeak bere interesetarako izan dezakeen arriskua ikusita, errekurtso hau jarri du AELVASAk aurkeztutako eskaintza berrikusteko eta baztertzeko, bere ustez esparru akordioaren preskripzio teknikoak ez betetzeagatik.

posible recurso de AELVASA contra el acto de adjudicación, interpone el presente recurso para que la oferta presentada por esta última sea revisada y excluida por incurrir, a su juicio, en diversos incumplimientos de las prescripciones técnicas del acuerdo marco.

Beraz, ondoriozta daiteke errekurtsoaren xedea dela AELVASAk hiru loteetarako aurkeztutako eskaintzaren onarpena.

Cabe deducir, por tanto, que el objeto de su recurso es la admisión de la oferta de AELVASA para los tres lotes.

Espedientean jasota dagoenez, Foru Kontratazioko Zentralak, 2021eko martxoaren 1eko bilkuran, 2. artxibo elektronikoaren edukiari buruz egindako txosten teknikoa ikusita (balio-judizio bidez baloratu beharreko dokumentazioari buruzkoa), erabaki zuen bi lizitatzaileren eskaintzak baztertzea, preskripzio teknikoen agiriko zehaztapenak ez betetzeagatik, eta onartu zituen baztertuak izan ez zirenen puntuazioak.

Consta en el expediente que en sesión celebrada el 1 de marzo de 2021 la Central de Contratación Foral, a la vista del informe técnico emitido acerca del contenido del archivo electrónico nº 2, referido a la documentación a valorar conforme a un juicio de valor, acordó excluir las ofertas de dos licitadores por incumplir las especificaciones del pliego de prescripciones técnicas, y aprobó las puntuaciones de las no excluidas.

Jasota dago, halaber, AELVASAko eta BERDIN SLko ordezkariak bertaratu ziren martxoaren 4ko bilkuran, Foru Kontratazioko Zentralak jakinarazi ziela martxoaren 1ean egindako balorazioaren emaitza, eta 3. artxibo elektronikoa ireki zuela, formulak aplikatuz baloratu beharreko dokumentazioari buruzkoa.

Consta, asimismo, que en la sesión celebrada el 4 de marzo, a la que asistieron representantes de AELVASA y de BERDIN S.L., la Central de Contratación Foral les comunicó el resultado de la valoración realizada el 1 de marzo y procedió a la apertura del archivo electrónico nº 3, referente a la documentación a valorar mediante la aplicación de fórmulas.

SPKLren 44.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, eskaintzak onartzea edo baztertzea erabakitzeko egintzak izapide egintzak dira eta horien aurka kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44.2.b) LCSP, los actos por los que se acuerde tanto la admisión como la exclusión de ofertas son actos de trámite susceptibles de recurso especial en materia de contratación.

SPKLren 50.1.c) artikuluaren arabera, adjudikazio prozeduran hartutako izapide egintzen aurka errekurtsoa jartzeko hamabost egun balioduneko epea hasiko da ustezko arau haustearen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Según el artículo 50.1.c) LCSP, el plazo de quince días hábiles para interponer el recurso contra los actos de trámite adoptados en el procedimiento de adjudicación se iniciará a partir del día siguiente a aquel en que se haya tenido conocimiento de la posible infracción.

Hala, epe hori martxoaren 26an amaitzen zen, eta, beraz, AELVASAren eskaintza onartzearen aurka

Ahora bien, ese plazo vencía el 26 de marzo, por lo que el recurso presentado el 14 de abril contra

apirilaren 14an aurkeztutako errekurtsoa epez kanpokoa da.

la admisión de la oferta de AELVASA resulta extemporáneo.

SPKLren 55.d) artikuluaren arabera, administrazio espedientea aztertu ondoren, errekurtsoa ebazteko ardura duen organoak errekurtsoa ez onartzea erabaki dezake, baldin eta argi eta garbi jasota badago errekurtsoa aurkezteko epea amaitu ondoren aurkeztu dela.

El artículo 55 d) LCSP prevé que el órgano encargado de resolver el recurso, una vez examinado el expediente administrativo, podrá declarar su inadmisión cuando constare de modo inequívoco y manifiesto que se ha presentado una vez finalizado el plazo establecido para su interposición.

Beraz, adierazten dugu ez dela onartzen errekurtsoa, epez kanpo aurkeztu delako.

Por consiguiente, debemos declarar la inadmisión del recurso por haber sido interpuesto fuera de plazo.

**HIRUGARRENA.-** Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegiak errekurtsogileari isun bat jartzea ekar dezakeena, SPKLk 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

**TERCERO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Horren arabera, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

Ez onartzea BERDIN SL enpresak jarri duen kontratazio alorreko errekurtso berezia.

Inadmitir el recurso especial en materia de contratación interpuesto por BERDIN S.L.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2021eko apirilaren 15a / San Sebastián, 15 de abril de 2021.**